

# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU SALAREN BATZORDEAK 2024KO MAIATZAREN 17AN HARTUTAKO ERABAKIAK**

## **BERTARATUAK:**

Ignacio Jose Subijana Zunzunegui presidente jauna.

Luis Angel Garrido Bengoechea jauna

Mercedes Guerrero Romeo andrea

Reyes Goenaga Olaizola andrea

Aner Uriarte Codon jauna

Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jauna

Emilio Lamo de Espinosa Vazquez de Sola jauna

eta Gobernu-idazkari Blanca Rosa Barbero Blanco andrea.

## **LEHENENGOA.- AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

## **BIGARRENA.- AURREKO BILERAN HARTUTAKO ERABAKIAK BETETZEA.**

Aurreko bileran hartutako erabakiak bete egin dira eta jakinaren gainean geratu da Sala.

### **1.- Magistratuak eta Epaileak**

#### **1.1.- DONOSTIAKO LEHEN AUZIALDIKO, MERKATARITZA- ARLOKO ETA LAN-ARLOKO EPAILEEN BATZARRA.**

Lehen Auzialdiko, Merkataritza-arloko eta Lan-arloko Donostiako Epaileen Batzarrak 2024ko apirilaren 15ean egindako aktaren berri eman zaio Salari, eta honela dio hitzez hitz:

*"1. Abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 2. xedapen iragankorrak planteatzen dituen arazoei buruz erabakitzea.*

6/2023 Errege Lege Dekretuaren 2. Xedapen Iragankorrak honako hau ezartzen du: "Errege lege-dekretu honen lehenengo liburuan jasotako aurreikuspenak berau indarrean jarri ondoren hasitako prozedura judizialei soilik aplikatuko zaizkie, salbu eta horretan besterik xedatzen bada".

Horrela, eztabaidan, 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri aurretik aurkeztutako demandei dagokienez, "hasitakoak" terminoari eman beharreko kontsiderazioa jorratzen da, eta, indarrean sartze hori gertatu zenean, demanda onartzeko ebazpena oraindik eman gabekoei dagokienez.

Bi jarrera defendatzen dira:

A) Legegileak "hasitakoak" terminoarekin definitutako unea demandak aurkezteari dagokiola ulertu behar da. Beraz, 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri aurretik aurkeztutako demandei indarreko arau prozesala aplikatu behar zaie demanda horiek aurkeztean, onarpen-ebazpena ematen den unea edozein dela ere. 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri ondoren aurkeztutako demandei, aldiz, arau prozesalaren idazketa berria aplikatuko zaie.

B) Legegileak "hasitakoak" terminoarekin definitutako unea hitzez hitz ulertu behar da. Hau da, 6/2023 Errege Lege Dekretuak sartutako erregulazio berria, indarrean sartzen denetik, izapidetzeko onartzen duen ebazpena oraindik eman ez den prozedura guztiei dagokiela ulertzen da, demanda arau prozesalaren aurreko idazketaren indarraldian aurkeztu bada ere.

Hector Lopez Causape jaunak azaldu duenez, kontua da ea egokiagoa den arau berriaren aplikagarritasuna demanda aurkezten denetik ulertzea, eta ez demanda onartzeko dekretutik, segurtasun juridikoarekin gehien bat datorren lehen irizpidea izan baitaiteke. Izan ere, demandak indarrean jarri aurretik aurkeztu zituztenek une hartan indarrean zegoen arau prozesalean oinarrituta aurkeztu zituzten, eta orain ezin da aldatu, epaitegi batzuetan izapidetzeko onartzeko denbora gehiago edo gutxiago izan delako, edo are gehiago, epaitegi beraren barruan funtzionario batzuk beste batzuk baino gehiago egunean daudelako izapideetan.

Bi aukerak planteatu ondoren, eztabaidari ekin zaio:

Beatriz Hilinger Cuellar andreak adierazi du Epaitegi bakoitzean erregistratzeko unea kontuan hartzea ere ez litzatekeela une egokia izango, segurtasun juridikorik eza bera planteatuko litzatekeelako. Dekanotzan erregistratzeko unea kontuan hartzea izango litzateke egokiena.

Tulio Rodríguez Madridejos jaunak ere adierazi du idazketa berria erreforma indarrean jarri aurretik emandako auziei aplikatuko litzaiekeela pentsatzeak lekuko-azuiak aplikatzeko arazoa ekarriko lukeela, hain zuzen ere aurretik aurkeztutako prozedurei dagokienez.

Pablo Aguirre Allende jaunak adierazi du bere epaitegian araua aplikatu izan dela izapidetzeko onartzeko dekretuaren data kontuan hartuta.

Honako hauek ere parte hartu dute: Elisabet Garcia Alegre, Erika Crespo Yoldi eta Maria Jose Mitxelena Elizetxeak; uste dute egokiagoa dela ulertzea arauaren idazketa berria araua indarrean jarri ondoren aurkeztutako prozedurei aplikatu behar zaiela, baina ez aurretik aurkeztutakoei, izapidetzeko onartzeko ebazpenaren data edozein dela ere.

*Eztabaida amaitu ondoren, bozketa egin da, legegileak "hasitakoak" terminoarekin definitu duen unea demandak aurkezteari dagokiola ulertzeko. Hortaz, 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean sartu aurretik aurkeztutako demandei indarreko arau prozesala aplikatu behar zaie demanda horiek aurkeztean, onartzeko ebazpena ematen den unea edozein izanda ere. 6/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri ondoren aurkeztutako demandei arau prozesalaren idazketa berria aplikatuko zaie, eta demanda Dekanotzan sartu den eguna hartuko da aurkezpen-datatzat:*

*- Aldeko botoak: 12*

*- Kontrako botoak: 0*

*- Abstentzioak: 1*

*Botoen gehiengoz onartzen da.*

## *2.- Galde-eskeak.*

*Pablo Aguirre Allende jaunak planteatu du Gobernu Salari eskaera egitea, Eusko Jaurlaritzak neurri egokiak har ditzan eskatzeko, ikustaldietara bertaratzen direnei eta Webexen esku hartzen dutenei dokumentuak erakusteko aukera emango dien sistema eraginkorra ezartze aldera. Izan ere, nahiz eta helburu horrekin pantailak instalatuta egon ikustaldi-aretoetan, alferrikakoak dira erabat, laguntza-funtzionarioak espediente digitalerako sarbiderik ez duen unetik. Hori guztia, alde batera utzita pantaila horiek horman jarrita daudela, eta altuera horrek nabarmen zailtzen duela pantailetan erakuts daitekeen edozein dokumentu aztertzea.*

*Aztertzeke beste gairik ez zegoenez, batzarra amaitutzat eman zen. Beraz, idazki hau egin da, eta, irakurri eta ados egonik, bertaratutako guztiek sinatu dute, Magistratu – epaile dekanoren ondoren, nirekin, Batzordeko idazkari naizen aldetik; ziurtatzen dut."*

Abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 2. xedapen iragankorrak planteatzen dituen arazoei buruz Epaileen Batzarrean hartutako irizpideak jaso dituela adierazi du Salak.

Galde-eskeen atalari dagokionez, Salak erabaki du Avantiusen hurrengo Jarraipen Batzordeari helaraztea Epaileen Batzordeak atzemandako beharrianak, ikustaldi-aretoen prestakuntza-beharrei eta beharrezko baldintza teknologikoei buruzkoak, jarduketa eta bista telematikoa garatu ahal izateko, hurrekotasuneko eta berehalako irizpideko berme prozesalak erabat errespetatuz eta dokumentu eta froga-ukiezintasuneko testuinguru kontraesankor batean, hori guztia 6/2023 Errege Lege Dekretuaren 41. artikulutik 45. artikulura aurreikusitako baldintzetan.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorriz, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

## **1.2.- DONOSTIAKO LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIETAKO EPAILEEN BATZARRA.**

2024ko apirilaren 15ean egindako Donostiako Lehen Auzialdiko Epaileen Batzarreko Aktaren berri eman zaio Salari. Hona hemen, hitzez hitz:

*"1. Donostiako Lehen Auzialdiko Epaitegien arteko banaketa-arauak bateratzea.*

2024ko otsailaren 16an, Santiago Romero Buck- Arstad dekanok bategiteko proposamena igorri zuen. Proposamen horri dagokionez, honako hau erabaki da:

- Lehen Auzialdiko 9. Epaitegiaren aipamena sartzeari, horri buruzko edozein gai epaitegi hori abian jartzen den unera atzeratuko dela ulertuta.

- Bosgarren banaketa-araua ezabatu da, hau da, Erregistro Zibilak Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegiari egindako banaketaren % 10eko salbuespena. Arau hori edukirik gabe uzten da.

- Seigarren arauan, A) atalean, kendu egin da aipamen hau: Konkurtso Legearen 5. artikulua eta horren ondoriozko intzidentek ".

- Zazpigarren arauan F) idatz-zatiaren edukia ezabatzen da, eduki honekin: "Nahi gabe barneratzeko eskaerak zuzenean eta eskusiboki banatuko zaizkio Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegiari, 1997ko azaroaren 21eko Epaileen Batzarraren Erabakian xedatutakoaren arabera". 'G atala F izango da aurrerantzean.

- Zazpigarren arauan G atal berri bat gehitzen da, eduki honekin: "Agintaritza judizialaren esku-hartzea behar duten nazioarteko lankidetzarako eskaerak, txandaka banatuko direnak Lehen Auzialdiko 1., 2., 4., 5., 7., 8. eta 9. zk.ko epaitegien artean (funtzionatzen hasten denean), kontuan hartuta familia-arlokoak direnak zuzenean banatuko direla 3 eta 6 zk.ko epaitegiei zuzenean, txandaren arabera".

- Zortzigarren araua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita: "Idazkia sartzeari dagokionez, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearazteko premiazko neurriak onartzen dituen abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuan xedatutakoa bete behar da justiziaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan".

- Hamabigarren araua edukirik gabe uzten da.

- Hamalagarren araua edukirik gabe uzten da.

- Hamaseigarren araua gehitzen da, Lehen Auzialdiko 3 eta 6 zenbakiko Epaitegietan banaketa-arauak sartzeko, 2024ko urtarrilaren 30eko Batzar Sektorialean erabakitakoaren arabera.

Aho batez onartu da arauak adierazitako moduan bateratzea.

2.- Galde-eskeak.

Ez dago galde-eskerik.

Aztertzeke beste gairik ez zegoenez, batzarra amaitutzat eman zen. Beraz, idazki hau egin da, eta, irakurri eta ados egonik, bertaratutako guztiek sinatu dute, Magistratu – epaile dekanoren ondoren, nirekin, Batzordeko idazkari naizen aldetik, ziurtatzen dut. "

Banaketa-arauei dagokienez, Salak aho batez erabaki du Epaileen batzarrak proposatutako banaketa-arauak onartzea, eta jarduketa judizialen alderdi osagarriei buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

Magistratu dekanokari eskatzen zaio dokumentu bakar batean bildutako arauak bidal ditzala, Gardentasunaren Atarian behar bezala argitaratzeko.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkontasuna kontrola dezan.

### **1.3.- GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ARLOKO EPAILEEN BATZARRA.**

Gasteizko Administrazioarekiko Auzien arloko Epaileen Batzarrak 2024ko apirilaren 25ean egindako bileraren aktaren berri eman zaio Salari, eta honela dio hitzez hitz:

*"GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ARLOKO EPAILEEN BATZARRAREN AKTA, 2024/04/25EAN EGINA.*

*LEHENENGOA.- 2024ko uztailleko, abuztuko eta iraileko oportetako oportren eta ordezenen planari dagokionez.*

*Honako opor hauek adostu dira:*

*XXX, Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiko magistratu andrea:*

*Uztailaren 26tik abuztuaren 30era, biak barne.*

*Ordezkoak:*

*Uztailaren 26tik 31ra, Administrazioarekiko Auzien 4 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX*

*Abuztuaren 1ean eta 2an, Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 6tik 9ra, Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 12tik 16ra, Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 19tik 28ra, Administrazioarekiko Auzien 4 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 29tik 30era, Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*XXX, Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiko magistratu jauna:*

*Abuztuaren 12tik irailaren 13ra, biak barne.*

*Ordezkoak:*

*Abuztuaren 12tik 16ra, Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 19tik 28ra, Administrazioarekiko Auzien 4 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 29tik 30era, Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Irailaren 2tik 13ra, Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*XXX, Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiko magistratu andrea:*

*Uztailaren 22tik 29ra, biak barne.*

*Abuztuaren 19tik 28ra, biak barne.*

*Ordezkoak:*

*Uztailaren 22tik 29ra, Administrazioarekiko Auzien 4. Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 19tik 28ra, Administrazioarekiko Auzien 4 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*XXX, Administrazioarekiko Auzien 4 zk.ko Epaitegiko magistratu andrea:*

*Uztailaren 1tik 12ra, biak barne.*

*Abuztuaren 9tik 16ra, biak barne.*

*Ordezkoak:*

*Uztailaren 1tik 5ra, Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiko magistratua,*

*XXX.*

*Uztailaren 8tik 12ra, Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiko magistratua,*

*XXX.*

*Abuztuaren 9an, Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegiko magistratua, XXX.*

*Abuztuaren 12tik 16ra, Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegiko magistratua, XXX.*

*BIGARRENA.- Epaile Magistratu Dekanoaren Proposamenari dagokionez, "Abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearazteko premiazko neurriak onartzen dituenak, justiziaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan egindako erreformaren osteko praktikak bateratzeko irizpideei buruzko proposamenak".*

*Bereziki, telematika bidezko jarduketei buruzko irizpideak "*

*Proposamen horri buruzko eztabaida sakona egin ondoren, honako hau erabaki da:*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 170. artikuluan oinarrituta, Konstituzioaren 9.3 artikulua bermatu nahi duen segurtasun juridikoaren printzipioa babesteko helburuarekin, betiere independentzia judiziala eta kide anitzeko organoek errekurtso bidez har ditzaketen ebazpenak errespetatuz, eta orain arte argitaratutako arauetatik ondorioztatzen den testuingurua kontuan hartuta, ondorengo aldaketak alde batera utzi gabe, administrazioarekiko auzien arloko magistratuek honako IRIZPIDE hauek adostu dituzte aho batez eta aurreikusteko asmoz haietara egokitze konpromisoarekin:*

*- Lehenengoa. Gure ustez, 6/2023 Errege Lege Dekretuaren ondoriozko Prozedura Zibilararen Legearen erregulazio berria soilik aplikatu behar zaie 2024ko martxoaren 20az geroztik egoitza judizialean AURKEZTUTAKO demanda, eskaera edo eskaeraren ondorioz hasitako prozedura judizialei.*

*- Bigarrena. Aurrekoa ezarrita, jardunbide prozesal egokia da: printzipioz, aurretiazko entzunaldietarako, judizioetarako, ikustaldietarako eta mota guztietako agerraldietarako deialdietan, deitutako guztien PRESENTZIA FISIKOA erreklamatzea.*

*Hala ere, hala eskatzen denean, esku-hartze telematikorako eskaerei erantzun zuzena, 6/2023 ELDak aldatutako PZLn aurreikusitako moduan.*

*HIRUGARRENA.- Administrazioarekiko Auzien 3 eta 4 zenbakiko epaitegietako magistratuen proposamenari dagokionez, hots, «Banaketa-arauak aldatzea, auzigai guztiak, hauteskunde-errekurtsoak barne, elkarren segidan banatzeko." Aho batez erabaki da mota guztietako auzigaiak ondoz ondoko txandan banatzea, hauteskunde-auzietako errekurtsoak eta kautelazko neurriak barne. Irizpide hori ondoz ondoko irizpidea da, 302-308 banaketa-irizpide bakoitzerako.*

*LAUGARRENA.- Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiko magistratuaren proposamenari dagokionez, hots, «Erreten txandaren bidezko ordezipena barne hartzen duten jarduketak definitzea, baldin eta gaur egun indarrean dagoen sistema mantentzen bada, bai eta ordezipen arrunta ere. Eta ordezipena gertatuz gero bere gain hartzen den eskumenaren hedadura eta mugak, bereziki oso kautelazko neurrien kasuan eta AAJLko 8.6 artikulua aipatzen dituen gainerako neurrien kasuan" Aho batez erabaki da oso kautelazko guardiak honako hauek barne hartzen dituela:*

- AAJLren 135. artikuluko oso kautela-neurri guztiak, astelehenetik ostiralera 14:00ak arte sartzen badira.*
- AAJLren 8.6.2 artikuluko osasun-neurri guztiak.*
- AAJLren 8.6.3 artikuluko sarrera- eta ikuskarpen-eskaera guztiak.*
- Halaber, kanpoko ordezkorik gabeko baimenengatiko edo gaixotasunagatiko ordezipen arrunta bere gain hartuko du, eta kasu horretan bulego arruntaren sinaduraz arduratu beharko du.*

*BOSGARRENA.- Administrazioarekiko Auzien 3 eta 4 zenbakiko Epaitegiko magistratuen proposamenari dagokionez, hots, "2024ko irailetik aurrera, oso kautela-neurrien guardia-asteen sistema ezabatzea eta oso kautelazko neurriak lau epaitegien artean ondoz ondo banatzea adostea. Hori guztia, Auzitegi Nagusira bidalitako ohiko ordezipen-sistema aldatu gabe ".*

*Oso kautelazko guardia-sistema ezabatzeko proposamena beste batzar batera atzeratzea erabaki da.*

*SEIGARRENA.- Aho batez erabaki da erreten gisa dagoen magistratuaren ezintasuna gertatuz gero urreko zenbakiko epaitegiko epaileak ordeztuko duela .*

*ZAZPIGARRENA.- Aho batez erabaki da magistratuaren abstentzio- edo errekusazio-kausa baiesten bada, aurreko zenbakiko epaitegiko epaileak ordeztuko duela.*

*Ez dago galde-eskerik. "*

*Lehenengo puntuari dagokionez, Salak erabaki du epaileen batzarrari jakitera ematea, oporrei buruzko erabakiak utziko direla Gobernu Salaren hurrengo Osoko Bilkuran batean batera onartzeko.*

*Bigarren puntuari dagokionez, formulatu den jardunbide prozesal onaren jakitun da sala; hala ere, legeria prozesalera egokitu beharko da, erabakia justifikatzen duen ebazpen judizial arrazoituarekin batera.*

*Hirugarren eta laugarren puntuei dagokienez, Salak erabaki du epaileen batzarrak proposatutako banaketa-arauen aldaketa onartzea, Jarduera Judizialen Alderdi Osagarrien 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6 artikuluan aurreikusitako moduan zabaltzea.*

*Magistratu dekanuari eskatzen zaio dokumentu bakar batean bildutako arauak bidal ditzala, Gardentasunaren Atarian behar bezala argitaratzeko.*

*Bosgarren puntuari dagokionez, Sala jakitun geratu da.*

Seigarren eta azken puntuari dagokionez, Sala jakitun geratu da, eta erabaki du adostutako ordezipen-irizpideak organo horiei dagozkien ohiko ordezipenen taulan sartzea.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritz, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezatasuna kontrola dezan.

#### **1.4.- BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO EPAILE EZ-ESPEZIALIZATUEN BATZARRA.**

Bilboko Lehen Auzialdiko Epaile ez-espezializatuena Batzarrak 2024ko maiatzaren 10ean egindako aktaren berri eman zaio Salari. Honela dio, hitzez hitz: *"OPORREI buruzko gai-zerrendako puntu bakarrari dagokionez, honako oporraldi hauek eskatzen dira:*

- .- Lehen Auzialdiko 1. Epaitegia, uztailaren 29tik abuztuaren 23ra.*
- .- Lehen Auzialdiko 2 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 29tik abuztuaren 16ra; gainerakoak geroago zehaztuko dira.*
- .- Lehen Auzialdiko 3 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 5etik irailaren 1era, eta abenduaren 23, 24, 26, 27, 30 eta 31n.*
- .- Lehen Auzialdiko 4 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 22tik abuztuaren 30era.*
- .- Lehen Auzialdiko 7 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 30etik irailaren 2ra.*
- Lehen Auzialdiko 8 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 29tik irailaren 3ra.*
- .- Lehen Auzialdiko 9 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 22tik abuztuaren 30era.*
- .- Lehen Auzialdiko 10. Epaitegia, uztailaren 29tik irailaren 2ra.*
- .- Lehen Auzialdiko 11 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 22tik abuztuaren 30era.*
- .- Lehen Auzialdiko 12 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 8tik irailaren 10era.*
- .- Lehen Auzialdiko 13 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 19tik 30era, eta abenduaren 23tik 2024ko urtarrilaren 15era.*
- .- Lehen Auzialdiko 15 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 1etik irailaren 5era*

#### **ESKARIEI ETA GALDEREI dagokienez**

*Epaile dekanoak erregistro-motak abenduaren 19ko 6/2023 Errege Lege Dekretuak egindako erreformara egokitzeko beharra planteatu du. Errege Lege Dekretu horren bidez, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana betearazteko premiazko neurriak onartu ziren justiziaren, funtzio publikoaren, toki-araubidearen eta mezenasgoaren arloan. Horretarako, AJEEBTK ematen dituen erregistro-mota berriak erantsi dira. Batzarra ados dago gaia aztertzearekin eta banaketa-arauetan sartzearekin. Erregistro-moten zerrenda jasotzen duen eranskina erantsi da.*

*Bertaratutakoek beste gairik proposatu ez dutenez, amaitutzat eman da batzar hau, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut."*



Gai-zerrendako puntu bakarrari dagokionez, Salak erabaki du Epaileen Batzarrari jakinaraztea oporrei buruzko erabakiak Gobernu Salaren hurrengo Osoko Bilkuran batera onartzeko utzi direla.

Eskaeren eta galderen puntuari dagokionez, Sala jakitun geratu da, eta erabaki du Estatuko Justizia Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Batzordeak onartutako erregistro-mota berriak Informatika Zerbitzura bidaltzea, Avantiu-en prozesu-kudeaketako sisteman ezar ditzan.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritik, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

### **1.5.- BILBOKO LAN-ARLOKO EPAILEEN BATZARRA.**

Bilboko Lan-arloko Epaileen Batzarraren 2024ko maiatzaren 8ko aktaren berri eman zaio Salari. Hona hemen, hitzez hitz:

*"OPORREI buruzko gai-zerrendako puntu bakarrari dagokionez, honako oporraldi hauek eskatzen dira:*

*.- Lan-arloko 1 zenbakiko Epaitegia, ekainaren 27tik, uztailaren 22tik abuztuaren 23ra eta abuztuaren 28tik 30era.*

*.- Lan-arloko 2 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 29tik irailaren 4ra.*

*.- Lan-arloko 3 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 22tik abuztuaren 29ra.*

*.- Lan-arloko 4 zenbakiko Epaitegia, ekainaren 24tik 28ra, uztailaren 19tik 30era, abuztuaren 16tik 23ra eta urtarrilaren 2tik 6ra.*

*.- Lan-arloko 5 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 1etik irailaren 6ra.*

*.- Lan-arloko 6 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 1etik irailaren 3ra.*

*.- Lan arloko 7 zenbakiko epaitegia, uztailaren 18tik abuztuaren 9ra, abuztuaren 26tik 29ra eta abenduaren 23tik urtarrilaren 2ra.*

*.- Lan-arloko 8 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 1etik 26ra.*

*.- Lan-arloko 9 zenbakiko Epaitegia, uztailaren 18tik abuztuaren 28ra.*

*.- Lan-arloko 10 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 7tik 30era.*

*.- Lan-arloko 11 zenbakiko epaitegia, uztailaren 1etik 19ra, abuztuaren 16tik 20ra, abenduaren 5etik 10era eta abenduaren 20tik 26ra.*

*.- Lan-arloko 12 zenbakiko Epaitegia, abuztuaren 5etik 30era, abenduaren 26, 27 eta 30ean eta urtarrilaren 2 eta 3an.*

*Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez (DOKUMENTUAK HELARAZTEA):*

*Epaileen Batzarrak horri buruz eztabaidatu du, ondoriorik atera gabe, eta gaia beste batzar batera bidaliko du, hala badagokio.*

*Galde-eskei dagokienez:*

*1.- Epaileen batzarrak berriro eskatu du lan-arloko epaitegi berri bat sortzeko, jurisdikzioaren lan-karga kontuan izanda. Are gehiago, ikusita aurten sartu den auzigaia-kopurua 2023koa baino askoz gehiago izango dela.*

*2.- Epaileen batzarrak gogorarazi du, baimen bat eskatzerakoan, magistratu bakoitzak identifikatu behar duela nork ordeztuko duen, aldez aurretik pertsona horri jakinarazita.*

*Bertaratutakoek beste gairik proposatu ez dutenez, amaitutzat eman da Batzar hau, eta nik, idazkariak, horren fede ematen dut. "*

Gai-zerrendako lehenengo puntuari dagokionez, Salak erabaki du Epaileen Batzarrari jakinaraztea oportei buruzko erabakiak Gobernu Salaren hurrengo Osoko Bilkuran batera onartzeko utzi direla.

Gai-zerrendako bigarren puntuari dagokionez, Sala jakitun geratu da eta Batzarrari jakinarazi dio epaitegi berri bat sortzeko proposamena Gobernu Salaren 2024ko martxoaren 22ko Osoko Bilkuran onartutako Beharren Memorian txertatu dela.

Galde-eskeen puntuari dagokionez, Sala jakitun geratu da.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritik, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

#### **1.6.- 2025EKO EKITALDIRAKO PRESTAKUNTZAREN PLANGINTZA.**

Salari jakinarazi zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Eskola Judizialeko Etengabeko Prestakuntzako Zerbitzuak bidalitako komunikazioa, karrera judizialaren 2025. urterako etengabeko prestakuntzaren plangintzari buruzkoa. Bertan, auzitegi nagusietako gobernu-organoen lankidetzak eskatu da, eta egoki diren prestakuntza-ekintzak proposatu dira.

Salak komunikazioa helaraziko die karrera judizialeko kideei, interesgarritzat jotzen dituzten proposamenak egin ditzaten.

#### **1.7.- 14/2024 GOBERNU-ESPEDIENTEA. - GORA JOTZEKO ERREKURTSOA.**

xxxx jaun/andreak Gobernu Salaren Batzordeak 2024ko martxoaren 8an hartutako 1.1.1. erabakiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoren berri izan du Salak. Erabaki hori zuzendu egin zen 2024ko apirilaren 12ko bileran, Auzitegi Nagusi honen Gobernu Salako Batzordean.

Halaber, presidente jaunak egindako txostenaren berri eman zaio Salari. Txostenak honako hau dio, hitzez hitz:

*EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO PRESIDENTEAREN TXOSTENA, 0318/2024 GORA JOTZEKO ERREKURTSOARI BURUZKOA.*

2024ko maiatzaren 3an, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kabinete Teknikoko Baliabideen Ataleko letradu buruaren komunikazio bat jaso zen, 0318/2024 gora jotzeko errekurtsolari buruzko txostena bidaltzeko eskatzen zuena. Errekurtso hori XXX (e)k jarri zuen Gobernu Salaren Batzordeak 2024ko martxoaren 8an hartutako 1.1 erabakiaren aurka (erabaki hori zuzendu egin zen Auzitegi Nagusi honetako Gobernu Salaren Batzordeak 2024ko apirilaren 12an egindako bilkuran, 5.2 erabakian). Erabaki horren bidez, ezetsi egin zen Epaileen Batzorde Sektorialak 2023ko abenduaren 19an aurkeztutako proposamena, auzigaiak Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1., 2. eta 3. zk.ko epaitegien alde banatzetik salbuestekoa.

Eskatutakoa betez, jakinarazten da Gobernu Salaren Batzordeak, 2024ko martxoaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuela, hitzez hitz:

"EZ ONARTZEA Epaileen Batzorde Sektorialak Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1., 2. eta 3. zk.ko epaitegien artean auzigaiak banatzetik SALBUESTEKO proposamena, eta auzigai guztiak administrazioarekiko auzien lau epaitegien artean ausaz banatzen jarraitu beharko da.

Salak bere gain hartu du M. Mercedes Guerrero Romeo andrearen ponentzia eta erabaki du ez onartzea Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1., 2. eta 3. zk.ko epaitegien alde auzigaiak banatzetik salbuesteko 2023ko abenduaren 19ko Epaileen Batzorde Sektorialak planteatutako proposamena.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta hori Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

Auzitegietako gobernu-organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 14.1 artikulua ezartzen duenaren arabera, osoko bilkuran edo batzordean eratutako gobernu-salen egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurari, eta, hala badagokio, berrikuspen-errekurtsoa, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezartzen dituen epeetan, moduan eta arrazoiengatik. "

Txostenak honela zioen, hitzez hitz:

"EBAZPEN PROPOSAMENA, GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGIEN BANATZEKO ARAUEI BURUZ GOBERNU SALARI AURKEZTEN DIONA.

#### AURREKARIAK

2003ko ekainaren 30ean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 4 zenbakiko Epaitegia jarri zen martxan. Lau dira hiri honetan jurisdikzio horretako auzigaiak ebazten dituzten epaitegiak.

2003ko ekainaren 20an, 1., 2. eta 3. zk.ko epaitegietako titularrak Magistratuen Batzordean bildu ziren banaketa-arauei buruz hitz egiteko, eta 4 zk.ko epaitegi berriko titularren izendapenaren zain egotea erabaki zuten, gai horri buruz eztabaidatzeko.

2003ko abenduaren 14an, 1., 2. eta 4 zk.ko epaitegietako titularrak eta 3 zk.ko epaitegian zerbitzu-eginkizunetan dagoen epailea Magistratuen Batzarrean bildu ziren banaketa-arauen gaia aztertzeko, eta aldeko hiru botoren eta kontrako boto baten gehiengoz honako hau ebatzi zuten:

- 1., 2. eta 3 zk.ko epaitegiak prozedura arrunten banaketatik salbuetsita egongo dira bost hilabetez.

- Epaitegi horiek prozedura laburtuak banatzetik salbuetsita egongo dira sei hilabetez.

- Kautela oso handiko, kautelazko eta gainerako prozedura berezietako auzigaiak lau epaitegien arteko ohiko banaketa-arauak jarraituko dituzte.

- Denborazko banaketa hori hasi eta hiru hilabete igaro ondoren, banaketa-arau iragankor hauek berrikusiko dira, betiere 4 zk.ko epaitegiak nahi ez den gainkargarik izan ez dezan.

4 zenbakiko Epaitegiko magistratuak aurkako botoa eman eta boto partikularra eman zuen.

Komeni da gogoraraztea 1., 2. eta 3. zk.ko epaitegiek bi errefortzu izan zituztela 2020/09/10etik 2022/06/30era, 2. eta 3. zk.ko epaitegietan hilabete alternatibotan, epai arruntak emateko, eta 1. zk.ko epaitegian, elkarren segidan, bi urte horietan. Bigarren errefortzua egun horietan bertan luzatu zen, epaitegi bakoitzean hilean PLren 21 epai emateko.

Gainera, bi errefortzu horiek Administrazioarekiko Auzien 1. zk.ko epaitegian luzatu ziren 2022/07/01etik 2022/10/30era.

2022ko urtarrilean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko auzigaiak lan-arloko jurisdikzioaren eskumen bihurtu ziren, eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiek beren lan-karga arindu zuten.

Administrazioarekiko auzien epaitegiek 570 auzitarako sarrera-modulu bat dute (abenduaren 28ko JUS 1415/2018 Agindua).

PNJren Estatistika Judizialean honako datu hauek argitaratzen dira:

2021ean 2.387 auzigai sartu ziren guztira Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan (epaitegiko 795,66 auzigai), eta 2.429 ebatzi ziren.

2022an, 1.253 sartu ziren (417 organo bakoitzeko), eta 2.326 auzigai ebatzi ziren.

2023ko lehen seihilekoan 708 auzigai sartu ziren (236 organo bakoitzeko) eta 910 ebatzi ziren (303,33 epaitegi bakoitzeko).

2023ko bigarren seihilekoan, administrazioarekiko auzien lau epaitegitan, 801 auzigai sartu ziren (200,25 epaitegi bakoitzeko), eta 814 ebatzi ziren (203,5 epaitegi bakoitzeko).

Guztira, 1.509 auzigai sartu ziren 2023. urtean.

## OINARRI JURIDIKOAK

LEHENENGOA. - Aplikatzekoak diren legezko arauak.

Jarduketa Judizialen Alderdi Osagarriei buruzko Erregelamenduaren 29. artikulua ezartzen du, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152.2. 1.) eta 167.1 artikuluekin bat, salbuespenez, epaitegi jakin bat auzigaiak banatzetik liberatu ahal izango dela, osorik edo zati batean, denbora mugaturako, justizia-administrazio onak hala eskatzen duenean.

30. artikulua gaineratu duenez, gobernu-salak hartuko du liberazio-neurria, salbuespenez eta arrazoituta, bai dagokion epaile-batzarrak proposatuta, bai bere ekimenez. Beharrezkoa izango da beti eragindako epailearen adostasuna.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 167.1 artikulua adierazten duenez, interesdunak hala eskatuta, Epaileen Batzarrak proposatu ahal izango du epaile bat auzigai-banaketatik liberatzea, osorik edo zati batean, denbora mugaturako, justizia-administrazio onak hala eskatzen duenean. Erabakia Gobernu Salari helaraziko zaio, onar dezan. Banaketa-arauetan egiten diren aldaketek ezin izango diete eragin izapidetzen ari diren prozedurei.

Aipatutako artikuluetatik ondorioztatzen dugu auzigaien banaketatik liberatzea "salbuespenezko" eta "beharrezko neurria izan behar dela justizia-administrazioarako", eta modu arrazoituan hartuko dela, Epaileen Batzarrak proposatuta edo Gobernu Salaren ekimenez eta eragindako epailearen oniritziarekin.

*Eraginpeko epaileak neurriaren aurkako botoa eman zuenez eta boto partikularra eman zuenez, Epaileen Batzarrek salari liberatze-neurria hartzeko helarazten dizkion arrazoiak aztertuko ditugu. Azter dezagun.*

*BIGARRENA. - Banaketatik salbuesteko proposamenak erabiltzen dituen argudioak.*

*Epaileen Batzarrean onartutako proposamenari buruzko bi argudio azaltzen dira:*

*A) Liberazioak onura ekarriko die herritarrei, azkarrago ebatzi ahal izango baita. Lehen arrazoi horri buruzko proposamena laburbilduko dugu.*

*2016., 2017. eta 2018. urteetan ebatzi gabeko auzigaiak geratu ziren, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko auzigaiak administrazioarekiko auzien epaitegiei zegozkielako. Ertzaintzako langileen gaiak ere Gasteizera eramán zituzten, Polizia Ikastegiaren egoitzara. 2022ko urtarriletik, sarrera-egoera hobetu egin da, eta diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko auzigaiak lan-arloko jurisdikzioari dagozkio. 2022ko estatistikaren arabera, 405 auzigai sartu ziren epaitegi bakoitzean (1.215 auzigai guztira).*

*2023an, sartu diren auzigaiak 2022koen antzekoak dira, eta kontuan hartu behar da 2023ko uztailaren 1etik aurrera sarrerak lau epaitegiren artean banatzen direla. 1, 2 eta 3 epaitegietan 48 auzigai sartu ziren lehen hiruhilekoan, 193 bigarreanean, 96 hirugarreanean eta 69 abenduaren 15era arte, 406 auzigai inguru urtean. 4 zk.ko epaitegiaren kasuan, bi hiruhileko baino ez dira sartuko 2023an, eta horietatik 165 auzigai izango dira (96 + 69).*

*"Horrek lehen desfase bat sortzen du". "Berdindu egin behar da, lau epaitegiak berdin amaitu daitezen 2023an, eta hurrengo hilabetei eta urteei antzeko baldintzetan aurre egin diezaieten. Ez dago politika judizialeko arrazoirik epaitegi hiperbabestu bat mantentzeko, ebatzi gabeko auzirik gabe eta 2023an sarreraren erdia gainerako epaitegien aldean duena, 4 zk.ko epaitegiak bere motako gainerako epaitegien zeregin bera baitu".*

*Honako hau ere esaten da: "Seinalamendu-agendak parekatzea da kontua", epaile guztiek antzeko lan-bolumenean lan egitea, eta herritarrek kaltetuta edo onuradun ez izatea, auzigaia banatu zaion epaitegiaren arabera. "Banaketa salbuesteko neurririk hartzen ez badugu, bereziki, 4. epaitegian banatzen den PLren demanda, bi hilabeteren buruan judizioa izango du, baina barruti judizialeko beste edozein epaitegitara banatzen bada, zortzi hilabete edo urte bateko itxaronaldia izango da judiziorako". Horrek tratu-desberdintasuna sortzen du herritarrengan, eta saihestu egin behar da.*

*b) 2016tik 2021era bitartean ebatzi gabe dagoen kopurua arintzen lagunduko du. Estatistikaren arabera, 1 zk.ko epaitegian 2023/09/30ean ebatzi gabe 151 prozedura arrunt eta 544 prozedura laburtu zeuden. 2. zenbakian, 116 prozedura arrunt eta 435 laburtu. 3. zenbakian, 94 prozedura arrunt eta 571 laburtu. Erantsi du epaitegi bakoitzak 100 auzigai inguru ebazten dituela hiruhilekoan.*

*Kontua da 4. zenbakiko epaitegiak beste hirurei laguntzea ebatzi gabe dagoena sei hilabetetan ebazten, ia bi urtetan beren kabuz ebatzi beharrean.*

*"2 zk.ko Epaitegiaren ebatzi gabeko datuak hartzen baditugu (116 ARRUNT eta 435 PL), eta 4 datu horietara hurbiltzea bada kontua, berdintzeko aurreko salbuespenari beste hilabete batzuk gehitzen badizkiogu ebatzi gabe dagoena hartzeko, honako hau daukagu:"*

*- 2 zk.ko Epaitegia: 116 ARRUNT eta 435 PL*

*- 4 zk.ko Epaitegia: 116 ARRUNT eta 435 PL*

*Ados ez dagoen epaileak bere harridura adierazi du, 2 zenbakiko epaitegiaren datuak bakarrik aurkezteagatik, horixe baita auzigai gehien ebazten duena. Era berean, adierazi du proposamena ez dela proportzionala eta ez dela egokitzen alderdi osagarriei*

buruzko 1/2005 Erregelamenduaren eskakizunetara, eta 4 zk.ko epaitegiko sarrera-kopurua laukoiztu nahi du, jardunean egon denean 2023. urteko sei hilabeteetan. Neurriak 4 zk.ko epaitegiaren gainkarga ekarriko luke, eta horrek ezin izango lioke erantzun azkar eta eraginkorrik eman herritarrari.

*HIRUGARRENA. - Neurriaren balorazioa. Lege-eskakizunak betetzea.*

2022az geroztik, Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan sartutako auzigaiak murriztu egin dira, DSBEn eskumenak lan-arloko epaitegiei esleitzearen ondorioz. Hala, 2021ean 2.387 auzigai sartu ziren guztira (795 epaitegi bakoitzeko). 2022an, guztira 1.253 izan ziren (417 organo bakoitzeko). Eta, 2023an, guztira 1.509 auzigai (epaitegi bakoitzeko 236 lehen seihilekoan, eta 200,25 auzigai bigarrenean, lau epaitegirekin), 436 auzigai 1., 2. eta 3 zk.ko epaitegietan.

Beharazko joera ikus dezakegu, azken bi urteetan epaitegiek ez baitute lortu Kontseiluak zehaztutako sarrera-modulua (570 auzigai). 2023ko bigarren seihilekoan joera hori areagotu egin zen, administrazioarekiko auzien laugarren epaitegiaren sorrerarekin batera.

Ebatzitako auzigaiei dagokienez, 2.429 auzigai ebatzi ziren 2021ean. 2022an 2.326 auzigai ebatzi ziren. 2021ean eta 2022ko ekainaren 30era arte, epaitegiek bi errefortzu izan zituzten, eta 1 zk.ko epaitegiaren kasuan luzatu egin zen, 2022ko urriaren 30era arte.

Hurrengo aldietako datuak hartzen baditugu, errefortzuak amaitu ondoren, emaitza honako hau da: 2022ko laugarren hiruhilekoan 689 auzigai ebatzi ziren (229 epaitegi bakoitzeko). 2023ko lehen hiruhilekoan 410 auzigai ebatzi ziren (136 epaitegi bakoitzeko), eta 2023ko bigarren hiruhilekoan 500 (166 epaitegi bakoitzeko). 2023ko hirugarren hiruhilekoan, lau epaitegi zeuden jardunean, eta 285 ebatzi ziren (71,25 epaitegi bakoitzeko). 2023ko laugarren hiruhilekoan 529 ebatzi ziren (132,25 epaitegi bakoitzeko).

Joera horrekin jarraituz gero, ez da aurreikusten Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegiek sarrera modulua 2024. urte honetan lortuko dutenik. 2022ko laugarren hiruhilekoan eta 2023an zehar lortutako ebazpen-maila Kontseiluak gomendatutakoaren azpitik dago.

Ondorioz, ez dago banaketa liberatzeko Alderdi Osagarriari buruzko Erregelamenduaren 29. eta 30. artikuluetan aipatzen diren salbuespenezko arrazoirik. Ikus dezakegunez, 2023ko laugarren hiruhilekoan erregistratutako sarrera-modulua Epaitegi horietan BJKNk markatutako sarrera-moduluaren %60-62ra iritsi zen (PNJren datuak), eta antzekoa izan zen 2024an aurreikusitako joera.

Sarrerako modulu honekin, epaileek ez dituzte soilik aurten sartutako auzigaiak ebatzi behar, baita aurreko urteetatik ebatzi gabekoak ere, ez baitugu ukatuko, bereziki 1 zenbakiko Epaitegian.

Gai horri dagokionez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskapen Zerbitzuak 1. zenbakiko Epaitegiari 2023. urteko lehen seihilekoan egindako ikuskapen birtualaren emaitzen berri eman zuen, eta adierazi zuen 2019ko bigarren seihilekoko ikuskapen baten ondorioz 1154/2020 jarraipen-espeditentea hasi zitzaiola XXX magistratu titularrari. 2023ko lehen seihilekoan, 650 auzigai daude ebatzi gabe, autonomia-erkidegoko eta estatuko batez bestekoa baino askoz ere gehiago. Magistratu titularren errendimendua adierazlearen % 45,9 izan da. Ikuskapenaren unean, hogeita hamar epai eman gabe zeuden, sei hilabete baino gehiagoko antzinatasuna zutenak.

Gobernu Sala epaitegi horietan metatutako atzerapena arintzen saiatu da, jada aipatu ditugun bi indartze-neurriekin, bi urtez jardun baitzuten (bi urte eta lau hilabete 1. zenbakian).

Arrazoietan esaten denez, salbuespen-proposamenaren helburua da 1., 2. eta 3. epaitegien atzerapena murriztea eta herritarrei erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa ematea. Hala ere, proposamenarekin batera ez dator ebazkizun dauden auziak murrizteko planik, banaketa-arauak aldatzeak eta sartutako gai guztiak 4 zk.ko epaitegi berrira bideratzeak ez du bermatzen arazo hori konponduko denik. Epaitegi horiek herrestan daramaten atzerapena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Ikuskapen Zerbitzuarekin lankidetzan konpondu beharko da, 1 zk.ko epaitegiaren kasuan gertatzen ari den bezala.

Ondorioz, ez dira betetzen aplikatu beharreko araudiak eskatzen dituen baldintzak, ez gaude salbuespenezko egoera baten aurrean, eta ez da egiaztatu Justizia Administrazioarentzat beharrezkoa denik banaketatik at uztea Administrazioarekiko Auzien hiru epaitegi. Aitzitik, sei hilabetez prozedura laburtuak 4 zk.ko epaitegian banatzen badira eta bost hilabetez arruntak, kolapsatzeko arriskua egongo litzateke epaitegi berrian, eta bertako titularra ez dagokion karga bat bere gain hartzera behartuko luke.

Esaten da modu horretan orain bigarren zenbakiko epaitegiak dituen auzi kopurura helduko litzatekeela, baina ahaztu egiten da salbuespenezko sei hilabete horietan ebatzi behar dituen auzi kopurua zenbatzea.

Era berean, esaten da 4 zk.ko epaitegian azkar erantzungo zaiela auziei, eta gainerako epaitegietan, berriz, hilabete eta urte batzuk beharko direla. Hori epaitegi bakoitzaren seinalamenduen erritmoaren araberakoa izango da, eta laster arindu ahal izango da, kontuan hartuta sartutako auziak behera egin dutela eta datozen urteetarako aurreikuspena. 2024/02/27ko seinalamendu-agenda egiaztatu ondoren, ikusi dugu 1 zk.ko epaitegian egindako azken seinalamenduak 2025eko abenduaren 9rako direla; 2 zk.koak, berriz, 2024ko uztailaren 10erako; 3 zk.koak 2024ko ekainaren 27rako, eta 4 zk.koak, azkenik, 2024ko apirilaren 14rako.

1, 2 eta 3 zk.eko epaitegien arteko alde horrek epaile batzuen eta besteen artean lan egiteko modu hain desberdina erakusten du, baita 1 zk.ko epaitegiaren errendimendu txikia ere, Ikuskaritza Zerbitzuaren txostenak egiaztatuta.

Laburbilduz, Administrazioarekiko Auzietako hiru Epaitegietako auziak liberatzeko proposameneari erabilitako argudioak ez dira sinesgarriak. Salbuespen-proposamen hori onartuz gero, hiru epaile horiei mesede egitea izango litzateke, epaitegi berriaren titularren lanaren kontura. Epaileen artean desoreka sortuko litzateke, eta ez dago argi neurriak herritarrari mesede egingo dionik. Proposamena egiten duenaren aldetik ez dago konpromisorik, ezta jarduera planik ere, ebazkizun dauden auziak murrizteko.

Horregatik guztiagatik, GOBERNU-SALARI PROPOSATZEN DIOT:

EZ ONARTZEA 2023ko abenduaren 19an Epaileen Batzorde Sektorialak Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1, 2 eta 3 zk.ko epaitegien alde egindako proposamena, auzi-banaketatik SALBUESTEKO, eta auzi guztiak ausaz banatzen jarraitzea Administrazioarekiko Auzien lau epaitegien artean.”

Era berean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien X zk.ko Epaitegiko magistratu titularrak aurreko erabakia zuzentzeko eskatu zuen, eta 2024ko apirilaren 12ko Gobernu-salaren Batzordean, Salak honako erabaki hau hartu zuen hitzez hitz:

“Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien X zk.ko Epaitegiko magistratu titularrak aurkeztutako idazkiaren berri eman zaio Salari. Idazki horren bidez, 2024ko martxoaren 8an Gobernu Salak burututako Batzordearen 1.1 Erabakian egindako akatsa zuzentzeko eskatu zen, 2015eko Administrazio Prozeduraren Legearen 109.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Halaber, ohorerako oinarritzko eskubidea eta datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea baliatuz, txostengileari, Gobernu salari eta

*Gobernu Salako Idazkaritzari eskatu zitzaizen beren datu pertsonalak (izen-abizenak) izengabetzeko edo seudonimizatzeko ponentzian, erabakian eta 2024ko martxoaren 8ko bileraren aktan.*

*Modu berean, Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten epaileei publizitatea eman zaenez eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari horren berri eman zaionez jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan, ponentzia, erabakia eta akta zuzendu ondoren (izen-abizenak anonimo bihurtuta), akta zuzendua berriz bidaltzeko eskatu zuen, publizitate bera emanez eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helaraziz, eta nire eskubideak gauzatzeko egiten dela adieraziz.*

*Salak, dagokion balorazioa egin ondoren, eta aho batez, honako hau erabaki du:*

- Ez da urratu ohorerako eskubidea; izan ere, ez ponentzian ez akordioan ez dira agertzen adierazpen iraingarriak edo baieztapen zehaztugabeak, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien X zk.ko Epaitegiko magistratuaren sinesgarritasun edo ospe profesionala kaltetzen dutenak.*
- Ez dago pribatutasunerako eskubidearen urraketarik, habeas data delakoaren ikuspegitik, magistratuen izen-abizenak ponentzian eta, integrazioz, Gobernu Salaren akordioan agertzean; izan ere, ponentziak eta akordioak ad intra dimentsioa dute, eta gobernu-organoak Epaileen Batzarrak proposatutako administrazioarekiko auzien epaitegien arteko banaketa asimetrikoari buruzko ebazpena eztabaidatu eta onartzeraz mugatzen da.*

*Bestalde, aldeko hiru botorekin, aurkako bat eta bi abstentziorekin:*

- Irizten dio erabakiaren akta posta korporatiboaren bidez zabaltzean datuak minimizatzeko printzipioa aplikatu behar zela, magistratuaren izen-abizenak kenduta; izan ere, ad extra proiektzioa zutenez, ez ziren beharrezkoak aipatutako hedapen horrekin lortu nahi zen helburu publikoa betetzeko. Hori dela eta, zuzenketa egitea erabaki du, eta erabaki hau eta akta izengabetua Euskal Autonomia Erkidegoko Karrera Judizialeko korporazio-posten bidez bidaltzea.*

*Salak presidente jaunak egindako txostena izenpetzen du. Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan xedatutakoa betetz, bidal bekio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, Errekurtsoen Atalaren bidez, aipatutako txostena, espedientearen kopia osoa eta ordenatuarekin batera.*

**1.8.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 2KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, EAEAN-KO LAE DEN VERÓNICA GARCIA CANAL ANDREAREN ALDEKO ETA OVIEDOKO MERKATARITZA-ARLOKO 3 ZK.KO EPAITEGIRAKO FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNARI BURUZ EMANDAKO TXOSTENAREN GAINEKOA DENA.**

*Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 3an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritik hartu zen eta honela dio hitzez hitz:*



*“Kontuan hartu da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurreko jakinarazpena, Gijonen kokatuta dagoen Oviedoko Merkataritza Arloko 3 zk.ko Epaitegirako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizunari buruzko txostena eskatzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko LAE-a den Veronica Garcia Canal andrearen aldekoa; erregistra bedi.*

*Presazko arrazoiei dagokienez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, txosten hau egitea erabaki da BJLOren 216 eta 350 artikuluei jarraiki:*

*1º. Zerbitzu-eginkizuna emateko, beharrezkoa izango litzateke jurisdikzio-jardueraren ordezkoko epaile iraunkor bati dei egitea, zerbitzu-eginkizuna eskatzen den organoan denbora luzez jardun dezan.*

*2º. Gainera, ordezkapenak eremu horretan dauden aurrekontu-murritzetako arazoak planteatzen ditu, eta Justizia Auzitegi Nagusi honek bere gain hartu ezin duen kostua dakar, ordezkoko magistratuen eta ordezkoko epaileen ordainsarietarako erabilgarri dagoen kredituaren egungo egoera dela eta.*

*3º. Salaren ustez, titularrak betetzen ditu organo judizialetan zerbitzua emateko mailarik onena.*

*Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran horren berri eman eta ezagutaraz bekio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.”*

### **1.9.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 10EKO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, LOURDES ARIAS VILUMBRALES ANDREAREN ALDEKO ETA NAFARROAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO 3. ATALERAKO FUNTZIOAK ALDATUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUNARI BURUZ EMANDAKO TXOSTENAREN GAINEKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 10ean hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritz hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Jasotzat jotzen da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Errefortzuen eta Lanpostu Hutsen Unitateak igorritako aurreko jakinarazpena. Bertan, Lourdes Arias Vilumbrales andreak, Eibarko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zenbakiko Epaitegiko magistratu titularra denak, Nafarroako Probintzia Auzitegiko 3. Atalerako funtzioak aldatutako zerbitzu-eginkizuna betetzeko egiten duen eskariaren inguruko txostena eskatzen da; erregistra bedi.*

*Presazko arrazoiei dagokienez Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, txosten hau egitea erabaki da BJLOren 216 eta 350 artikuluei jarraiki:*

*1º. Zerbitzu-eginkizuna emateko, beharrezkoa izango litzateke jurisdikzio-jardueraren ordezkoko epaile iraunkor bati dei egitea, zerbitzu-eginkizuna eskatzen den organoan denbora luzez jardun dezan.*

2°. Gainera, ordezkapenak eremu horretan dauden aurrekontu-murrizketako arazoak planteatzen ditu, eta Justizia Auzitegi Nagusi honek bere gain hartu ezin duen kostua dakar, ordezeko magistratuen eta ordezeko epaileen ordainsarietarako erabilgarri dagoen kredituaren egungo egoera dela eta.

3°. Salaren ustez, titularrak betetzen ditu organo judizialean zerbitzua emateko mailarik onena.

Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran horren berri eman eta ezagutaraz bekio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.”

## **2.- Ordezko magistratuei eta ordezeko epaileei buruz**

### **2.1.- NATALIA VANEGAS HIGUERAREN ALDE EGINDAKO DEIA BERRESTEA, GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 3 ZK.KO EPAITEGIRAKO.**

Salak aho batez erabaki du Vitoria-Gasteizko magistratu dekanu and.ak egindako deia berrestea, Natalia Vanegas Higuera and.ak ordezeko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegian, 2024ko ekainaren 6an, titularra prestakuntza-ikastaro batera doalako.

Deia berretsi da Gobernu-sala honek ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoien artean dagoelako.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Administrazio-prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Igor bekio erabaki honen lekukotza jarduneko magistratu dekanuari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.

### **2.2.- MARIA LUISA TEJADO LLORETEREN ALDE EGINDAKO DEIA BERRESTEA, GERNIKAKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 3 ZK.KO EPAITEGIRAKO.**

Salak aho batez erabaki du magistratu dekanu and.ak egindako deia berrestea, Maria Luisa Tejado Llorente and.ak ordezeko epailearen kargua bete dezan herri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegian, 2024ko maiatzaren 22tik 23ra, titularra prestakuntza-ikastaro batera doalako.

Deia berretsi da Gobernu-sala honek ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoien artean dagoelako.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Administrazio-prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Igor bekio erabaki honen lekukotza jarduneko magistratu dekanuari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.

### **2.3.- MARIA TERESA DIAZ BARCENAREN ALDE EGINDAKO DEIA BERRESTEA, BALMASEDAKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 2 ZK.KO EPAITEGIRAKO.**

Salak aho batez erabaki du Balmasedako magistratu dekanu and.ak egindako deia berrestea, Maria Teresa Diaz Barcena and.ak ordezkoko epailearen kargua bete dezan herri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2 zk.ko Epaitegian, 2024ko maiatzaren 20an, titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak onartutako baimena duelako.

Deia berretsi da Gobernu-sala honek ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoien artean dagoelako.

Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Administrazio-prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.

Igor bekio erabaki honen lekukotza jarduneko magistratu dekanuari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.

### **2.4.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 2KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, ANA MARIA DE JUANA CEBALLOS ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 2an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritik hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Getxoko epaile-magistratu dekanu jn.ak ordezkoko epaile ANA MARIA DE JUANA CEBALLOS and.aren alde egindako deiaren berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki da berrestea Getxoko epaile-magistratu dekanu jn.ak egindako deia ANA MARIA DE JUANA CEBALLOS andreak ordezkoko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegian, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.5 artikuluko baimena eman zaiolako titularrari, 2024ko apirilaren 30etik maiatzaren 7ra.*

*Deia berretsi da Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoien artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Administrazio-prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile magistratu dekanuari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

**2.5.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 3KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, ARANZAZU AGUINAGA MENDIZABAL ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 3an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritz hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Donostiako epaile-magistratu dekano jn.ak ordezeko epaile ARANZAZU AGUINAGA MENDIZABAL and.aren alde egindako deiaren berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, erabaki da berrestea Donostiako epaile-magistratu dekano jn.ak egindako deia ARANZAZU AGUINAGA MENDIZABAL andreak ordezeko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Lan-arloko 5 zk.ko Epaitegian, 2024ko maiatzaren 8tik titularra lekualdaketatik itzuli arte edo lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez bete arte, edo lurralde-atxikipeneko epailea, destinoaren zain dagoen epailea, LAEari laguntzeko epailea, praktketan ari den epailea edo atxikitako epailea izendatzearen bidez bete arte, BJLOren 355 bis artikuluekin bat etorritz.*

*Deia berretsi da Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsua jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Administratibo Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile-magistratu dekanuari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

**2.6.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 6KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, IÑIGO MARTINEZ AZPIAZU ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 6an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritz hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Bilboko epaile-magistratu dekano jn.ak ordezeko epaile IÑIGO MARTINEZ AZPIAZU jn.aren alde egindako deia berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, erabaki da berrestea Bilboko epaile-magistratu dekano jn.ak egindako deia IÑIGO MARTINEZ AZPIAZU jaunak ordezeko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko 1 Zk.ko Epaitegian, titularrari hiru eguneko baimena eman zaiolako maiatzaren 9tik 13ra.*

*Deia berretsi da Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpena jotzeko arrazoen artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Administratibo Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile magistratu dekanoari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

## **2.7.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 8KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, NATALIA VANEGAS HIGUERA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 8an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritz hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu dekano jn.ak ordezeko epaile NATALIA ALEJANDRA VANEGAS HIGUERA and.aren alde egindako deia berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, erabaki da berrestea Vitoria-Gasteizko epaile-magistratu dekano jn.ak egindako deia NATALIA ALEJANDRA VANEGAS HIGUERA andreak ordezeko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Administrazioarekiko Auzien 3 zk.ko Epaitegian, titularra ikastaro batera doalako 2024ko maiatzaren 16an.*

*Deia berretsi da Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpena jotzeko arrazoen artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Administratibo Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile magistratu dekanoari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

**2.8.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 10EKO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, ANA MARÍA DE JUANA CEBALLOS ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 10ean hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritz hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Getxoko epaile-magistratu dekanok jn.ak ordezkoko epaile ANA MARIA DE JUANA CEBALLOS and.aren alde egindako deia berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, erabaki da berrestea Getxoko epaile-magistratu dekanok jn.ak egindako deia ANA MARIA DE JUANA CEBALLOS andreak ordezkoko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegian, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 373.5 artikuluko baimena eman zaiolako titularrari, 2024ko maiatzaren 8tik 14ra.*

*Deia berretsi da Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpena jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Administrazio-prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile magistratu dekanok iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

**2.9.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 9KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, SUSANA IÑIGUEZ DEL VAL ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 9an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritz hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Barakaldoko epaile-magistratu dekanok and.ak ordezkoko epaile SUSANA IÑIGUEZ DEL VAL and.aren alde egindako deia berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritz, erabaki da berrestea Barakaldoko epaile-magistratu dekanok and.ak egindako deia SUSANA IÑIGUEZ DEL VAL andreak ordezkoko epailearen kargua bete dezan hiri horretako Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegian, 2024ko maiatzaren 16an, titularrari norberaren gauzetarako baimena eman zaiolako.*

*Deia berretsi da Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako irizpideen arabera kanpo-ordezpenera jotzeko arrazoiaren artean dagoelako.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Administratibo Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile magistratu dekanari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

## **2.10.- PRESIDENTE JAUNAREN 2024KO MAIATZAREN 9KO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7 ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK, NAIARA GARCIA DE LA MUÑOZA ORDEZKO EPAILEARI DEI EGITEARI BURUZKOA DENA.**

Salak aho batez erabaki du Presidente jn.ak 2024ko maiatzaren 9an hartutako erabakia berrestea. Erabaki hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei dagokienez ezarritakoarekin bat etorritik hartu zen eta honela dio hitzez hitz:

*“Gernika-Lumoko epaile-magistratu dekanari and.ak ordezkoko epaile NAIARA GARCIA DE LA MUÑOZA and.aren alde egindako deiaren berri eman ondoren, erregistra bedi.*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presako arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, erabaki da berrestea Gernika-Lumoko epaile-magistratu dekanari and.ak egindako deiak NAIARA GARCIA DE LA MUÑOZA andreak ordezkoko epailearen kargua bete dezan herri horretako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegian 2024ko maiatzaren 14an, berak hasi eta eten zuen judizio bat amaitzeko.*

*Deia berresteko arrazoiak da judizioa amaitzea hura hasi eta frogaren zatia burutu zuen epaile barari dagokiola.*

*Erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuran, Herri Administrazioen Araubide Administratibo Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe, modu eta arrazoiak aintzat hartuta.*

*Igor bekio erabaki honen lekukotza epaile magistratu dekanari iragarki-taulan argitara dezan 30 egunez.*

*Jakinaraz bedi Gobernu-salak egingo duen hurrengo bileran.”*

## **3.- Bake-epaileei buruzkoak**

### **3.1.- UGAO-MIRABALLESKO (BIZKAIA) BAKE-EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Ugao-Miraballesko (Bizkaia) Udalaren Osoko Bilkuraren 2024ko urtarrilaren 30eko Erabakiaren proposamenaren berri eman da. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Araudiaren 8. artikulua aplikatu behar dela iritzita, Salak aho batez erabaki du udalerrri horretako bake-epaile titular Ricardo Zarate Casado jauna izendatzea, eta dagokion izendapena egitea. Izendapen hori EHAAn argitaratu beharko da, eta horren berri emango zaie Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta barrutiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileari, edo, hala badagokio, epaile dekanuari, eta Erregelamendu horren 12. artikuluan aurreikusitako ohartarazpena egingo da.

### **3.2.- UGAO-MIRABALLESKO (BIZKAIA) ORDEZKO BAKE-EPAILEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Ugao-Miraballesko (Bizkaia) Udalaren Osoko Bilkuraren 2024ko martxoaren 26ko Erabakiaren proposamenaren berri eman da. Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.2 artikuluan xedatutakoa bete dela eta Bake Epaileen Araudiaren 8. artikulua aplikatu behar dela iritzita, Salak aho batez erabaki du udalerrri horretako ordezkari bake-epaile Ana Maite Fernandez Otamendi andrea izendatzea, eta dagokion izendapena egitea. Izendapen hori EHAAn argitaratu beharko da, eta horren berri emango zaie Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta barrutiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaileari, edo, hala badagokio, epaile dekanuari, eta Erregelamendu horren 12. artikuluan aurreikusitako ohartarazpena egingo da.

## **4.- Diziplina-arloa**

(Gairik gabe)

## **5.- Laguntza- eta jarraipen-neurriak**

### **5.1.- FUNTZIOAK ALDATU GABEKO ZERBITZU-EGINKIZUNAREN PROPOSAMENAK, BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 15 ZK.KO EPAITEGIRAKO ERREFORTZU GISA.**

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 350.1 artikulua aplikatuz, eta Gobernu-Salako Batzordearen 2024ko maiatzaren 3ko erabakiz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 26 bis 3.1 artikuluan aurreikusitako publizitatea ematea xedatu zen karrera judizialeko kideen artean, errefortzu gisa eginkizunak aldatzen ez dituen zerbitzu-eginkizun bat betetzeko Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegian 6 hilabetez.

Zerbitzu-eginkizunaren publizitatea egiteko epea igarota, honako eskabide hauek jaso dira:



Lehentasunezko irizpide legalak 216 bis 3						
Eskatzailea	Jurisdikzioa	Lekua eta lantokia	Organoaren egoera 1. Hiruhilekoa 2024			Hizkuntza/ DFPV/EHFZ
			Sartutakoak	Ebatziak	Izapidetzen	
ANTONIO LUIS LATORRE MERCADO	Zibila	Bilboko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegia	373	472	2214	DFPV/EH FZ
PATRICIA BEZOS TORICES	Administra- zioarekiko auziak	Bilboko Administrazioare kiko Auzien 3 zk.ko Epaitegia	123	145	222	Ez dago jasota
PAULA BOIX SAMPEDRO	3. Atala Zibila	Bizkaiko Probintzia Auzitegia	260	140	1156	DFPV/EH FZ

ALEJANDRO ALONSO SEBASTIAN	Mistoa	Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegia	426	466	1152	<b>Ez dago jasota</b>
JOSE MARIA TAPIA LOPEZ	Merkataritza- arloa	Bilboko Merkataritza- arloko 3 zk.ko Epaitegia	248	279	570	<b>Ez dago jasota</b>

1/2019 Instrukzioaren irizpideak						
Eskatzailea	Eskalafoia	Formakuntza	Antzeko organoetan egindako lana	Argitalpenak	Kontziliazioa	Lanpostu hutsak ordezkatzeko mekanismoa
ANTONIO LUIS LATORRE MERCADO	3397		Bi urte Bilboko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegian eta aurretiazko esperientzia zeregin bera duten organoetan: Bilboko Lehen Auzialdiko 11 bis zk.ko Epaitegian eta Bizkaiko Probintzia Auzitegiko 4. Atalean			

PATRICIA BEZOS TORICES	3295		Jurisdikzio zibilean jardun du, epaitegi mistoetan eta Bilboko Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Epaitegian			
PAULA BOIX SAMPEDRO	3109		Gaur egun zerbitzu- eginkizunetan dihardu, funtzioen ordezkapenarekin, Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Hirugarren Atalean			
ALEJANDRO ALONSO SEBASTIAN	Ez dago jasota					
JOSE MARIA TAPIA LOPEZ	1961					

Eskainitako zerbitzu-eginkizunean parte hartzeko eskatzen diren merezimenduak betetzen dituzten eskatzaileen inguruabarrak eztabaidatu dira, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irizpide horien arabera, Salak balioesten du Antonio Luis Latorre Mercado jauna eta Paula Boix Sampedro andrea indartu beharreko organoa integratuta dagoen jurisdikzio-ordena berekoak direla eta herri berean dihardutela.

Jose Maria Tapia Lopez jaunari dagokionez, bere titulartasuneko organoa egoera hobean dago, baina merkataritzako jurisdikzio-ordenari dagokio. Gainerako eskatzaileak ez dira jurisdikzio-ordena zibilekoak (Patricia Bezos andrearen kasuan) edo jurisdikzio partekatua dute eta haien epaitegia ez dago herri berean (Alejandro Alonsoren kasuan).

Salak inguruabar guztiak baloratu ondoren, hautagaien artean bozkatzen du eta emaitza hau izan da: Paula Boix Sampedro andrearen aldeko 4 boto eta 3 abstentzio; jurisdikzio-ordena eta herri berean jarduteari buruzko legezko irizpideak betetzen direla iritzita, bere kasuan betekizun gehigarri bat ematen da, bere eginkizunak betetzen dituen organo judizialaren egoera hobea da.

Salak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari Paula Boix Sampedro andrearen aldeko proposamena aurkeztea erabaki du, eginkizunak aldatu gabe zerbitzu-eginkizuna betetzeko Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegian.

Bidal bedi Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, dagozkion ondorioetarako.

Jakinaraz bekie erabaki hau Bilboko epaile magistratu dekanuari, proposatutako magistratuari eta eskaera onartu ez zaien eskatzaileei.

## **6.- Bestelako gaiak**

### **6.1.- BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 17 ZK.KO EPAITEGIAREN PLANTILLA ORGANIKOA ERATZEKO PROPOSAMENA.**

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio Salari, Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zk.ko Epaitegiko plantilla organikoa sortzeari buruzkoa, 2023ko programazioari dagozkion hirurogeita hamar unitate judizial sortzeko abenduaren 27ko 1170/2023 Errege Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

### **6.2.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN DIZIPLINA-EKINTZAREN SUSTATZAILEAK 187/2024 INFORMAZIO-EGINBIDEA HASTEARI BURUZ BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA.**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Diziplina Ekintzaren sustatzaileak bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio Salari. Bertan adierazten du 187/2024 informazio-eginbidea hasi dela, Donostiako Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegiari buruz XXX-(e)k aurkeztutako idazkiaren bidez.

### **6.3.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN DIZIPLINA-EKINTZAREN SUSTATZAILEAK 164/2024 INFORMAZIO-EGINBIDEA HASTEARI BURUZ BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA.**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Diziplina Ekintzaren sustatzaileak bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio Salari. Bertan 164/2024 informazio-eginbideari hasiera eman zaiola jakinarazi du, Ikuskapen Zerbitzuak Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zenbakiko Epaitegiari buruz aurkeztutako idazkiaren ondorioz.

### **6.4.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN DIZIPLINA-EKINTZAREN SUSTATZAILEAK 189/2024 INFORMAZIO-EGINBIDEA HASTEARI BURUZ BIDALITAKO JAKINARAZPENAREN BERRI EMATEA.**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Diziplina Ekintzaren sustatzaileak bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio Salari. Bertan 189/2024 informazio-eginbideari hasiera eman zaiola jakinarazi du, Tolosako Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zenbakiko Epaitegiari buruz XXX-(e)k XXX ordezkatzuz aurkeztutako idazkiaren indarrez.

## **ERABAKIAK JAKINARAZTEA.**

Salak aho batez erabaki du bilera honetan hartutako erabakiak interesdun guztiei jakinaraztea.

Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 10:30ean hasi eta 11:30ean amaitu baita, eta presidente jaunak sinatzen duen akta hau egin da. Fede ematen dut.